



**UROLA ERDIKO ZERBITZU MANKOMUNITATEKO BILKETA ZERBITZURAKO KOORDINATZAILE BAT**  
**KONTRATATZEKO ETA LAN POLTSA ERATZEKO OINARRIAK**

**Deialdiaren helburua eta arau orokorrak.**

Oinarri hauen xedea da Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatearen hondakin bilketa zerbitzurako koordinatzaile bat kontratatzeke eta lan-poltsa eratzeke aukeratze prozesua arautzea da, zerbitzu premiak asetzeke, unean uneko lanpostu hutsak betetzeke, aldi baterako programak egiteagatik, eginkizunen pilaketagatik edo behin-behineko beharrak betetzeke.

Lanpostuak C2 sailkapen mailan, eta 13. mailari dagokion soldata-maila du. Koordinatzailearen urteko ordainkizun gordina 32.187,27€ izango da. Soldata hori kontzeptu guztiengatik izango da, eta 12 hileko ordainketatan eta aparteko bitan, abenduan eta ekainean, egingo da.

Nolanahi ere, Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitateak zehaztu beharko du lanaldia, betiere lanpostuaren izaeraren eta premien arabera.

Hautaketa prozesuan parte hartu duten izangaiek lan poltsa eratuko dute, lortutako puntuen arabera. Lan poltsa hori erabili ahal izango da Urola Erdiko Mankomunitateak izan litzakeen aldi baterako lan premiak betetzeke.

**Bigarrena. Eginkizunak.**

- 1) Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitateak bilketa zerbitzua eskaintzen duen udalerrietako koordinazio pertsonal eta logistikoa. Bilketa urtean 365 egunetan egiten denez asteburueterako aldiak estali beharko direlarik. Bilketaren koordinazioaren barruan ezustekoei erantzutea litzateke adar nagusietako bat.
- 2) Lan ariskueta prebentzio arauak, barne protokolo eta erregistroak, barne arauak e.a. betearazi. Bai biltzaile zein informatzaileenak.
- 3) Koordinatu beharreko ekipoak biltzaileenak eta informatzaileenak izango lirateke.
- 4) Biltzaile zein informatzaileen lan egutegiak antolatu. Ekipoen optimizazioa bilatuz.
- 5) Biltzaileen orduen kontrola eta jarraipena.
- 6) Bilketarekiko intzidentziak aztertu eta sistematizatzeko proposamenak ekipo teknikora igorri.
- 7) Bilketarako erabiltzen diren baliabideen mantenuaren inguruko jarraipena eta kontrola.
- 8) Logistikari dagokionez tailerren gestioa, kamioien koordinazioa, urgentzien konponketak bideratzea.
- 9) Eskatzen zaion beste edozein lan, bere kategoriari dagokiona.

**Hirugarrena.- Hautagaien betebeharrak.**

Onartua izateko eta, hala badagokio, probetan parte hartu ahal izateko, ondorengo baldintzak bete beharko dira:



a) Europako Batasuneko kide diren estaturen bateko nazionalitatea izatea, edo, Europako Batasunak egindako eta Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraikiz, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango dute, halaber, Europako Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideek eta bere ondorengoez eta ezkontideek –baldin eta zuzenbideko banaketarik ez badago–; ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiago izan behar dituzte, edo, adin horretatik gorakoak badira, haien kontura bizi behar dute.

b) Eskaera aurkezteko garaian 16 urte beteta izatea eta derrigorrezko erretirorako adina baino gehiago ez izatea, funtzio publikoaren arloko oinarrizko legeei jarraiki betiere.

c) Eskola-ziurtagiria edo parekoa den titulazio maila izatea, edo, titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea, eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen.

d) Lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzea galaraziko dion gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

e) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko inolako egoeratan ez egotea, eta edozein Administrazio Publikotik di-ziplina espediente bitartez baztertuta ez egotea.

f) Euskara mailari dagokionez hautagaia gai izango da elkarrizketa batean oinarrizko mailan hitz egiteko. Batez ere, bere lanean ohiko diren hizkuntza alorreko ekintzei ahoz erantzuteko adinako gaitasuna izango du. Ulertzeko gaitasun handiagoa izango du berak hitz egiteko baino.

g) C motako gida baimenaren edo baliokide baten jabe izatea.

h) CAP gaitasun agiria izatea, betiere 2013an legez baimena eduki behar dutenek (2007ko uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretua, errepide bidezko garraiorako ibilgailu zenbaiten gidarien hasierako kualifikazioa eta etengabeko prestakuntza arautzen duena, bigarren xedapen iragankorra).

Eskabideak aurkezteko epea bukatzerako bete beharko dira Hirugarren Oinarrian finkatutako baldintza horiek guztiak, eta bere horretan gorde beharko dira lanean hasteko garaian. d) ataleko betebeharra egiaztatze Mankomunitateak, bere kasuan, Osasun Zerbitzuak berari azterketa egitea agindu ahalko du.

Edozein kasutan, 2007ko uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretuak, errepide bidezko garraiorako ibilgailu zenbaiten gidarien hasierako kualifikazioa eta etengabeko prestakuntza arautzen duen araudiak, ezartzen dituen prestakuntza betebeharrak hautagaiek bete beharko dituzte, hots, euren kontura izango da beharrezkoa den prestakuntza.

#### **Laugarrena. Eskabideak aurkeztea.**

Eskabideak Urola Erdiko zerbitzu Mankomunitateko Lehendakariari zuzendu behar zaizkio, iragarkia prentsan argitaratu eta hurrengo 15 egutegiko egun baino lehen, ondorengo baldintzak betez:

a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.

b) Izanez gero, zehaztu beharko dute zein hizkuntza-gaitasun duten egiaztatua euskararen ezagutzari dagokionez, eta haren kopia aurkeztu

c) Eskariarekin batera aurkeztu beharrekoak:

— Nortasun-agiriaren fotokopia.

— Gida baimenen fotokopia eta dagokion kasuan, CAParen kopia

— Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.



d) Eskabideak behar bezala beteta Mankomunitateko Erregistro Orokorrean (9:30etatik 13:00tara) aurkeztu behar dira, Foru Ibilbidea 18an, Azpeitian, edota azaroaren 26ko 30/1992 Legeak — Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzkoak— 38.4 artikuluan ezartzen dituen moduetakoren batean. **15 egun naturaleko epean**, deialdi honi buruzko iragarkia prentsan argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Eskabideak posta-bulegoetan aurkezten badira, epea amaitu baino lehenago egin beharko da, gutun-azal irekian, postetxeko funtzionarioak behar bezala data jarri eta zigilua eman diezaien.

Horrela eta ez bestela ulertuko da postetxean aurkeztutako egunean sartu zirela eskabideak.

### **Bosgarrena. Izangaiak onartzea.**

#### **1. Hautagaien onarpena**

Eskariak aurkezteko epea bukatzean, hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartuko ditu Mankomunitateko Lehendakariak. Zerrenda horiek web orrian emango dira argitara, [www.urolaerdia.org](http://www.urolaerdia.org), eta 7 laneguneko epea utziko da ez-onartzea eragin duten akatsak zuzendu eta hutsuneak betetzeko, edota zerrenden aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Ez bada erreklamaziorik aurkezten, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira. Erreklamazioak egiten badira, onartu edo baztertu egingo dira beste ebazpen baten bidez, eta honela onarturiko behin betiko zerrendak lehen adierazitako moduan jarriko dira jende aurrean.

#### **2. Epaimahai Kalifikatzailea**

Honela osatuko da oposizio-lehiaketako Epaimahai Kalifikatzailea:

##### **Lehendakaria**

- Mankomunitateko idazkaria edo honek eskuordeturiko teknikaria.

##### **Mahaikideak**

- Ingurugiro etxea fundazioko arduraduna edo honek eskuordeturiko teknikaria.
- Bi udal teknikari.
- Mankomunitateko zerbitzu burua edo honek eskuordeturiko teknikaria, halaber, idazkari lanetan jardungo delarik.

Epaimahaiko kideak Mankomunitateko lehendakariak izendatuko ditu eta izendapen hori Mankomunitateko web orrian emango da argitara, onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera.

Epaimahaiari komenigarri iruditzen zaion probetan, gai bakoitzean aditu diren aholkularien laguntza eskatu ahal izango du.

Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen Legeak 28. artikuluan ezarritako egoeretakoren bat ematen bada Epaimahaiko kideengan, kide horiek ez dute esku hartu behar — Mankomunitateko lehendakariari jakinaraziz— eta hautagaiek ere ezetsi egin ditzakete.

Epaimahaiaren erabakiak bildutakoen botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketa kasuan, lehendakari gisa diharduenarenak erabakiko du.

Epaimahaia ezingo da osatu, ezta lanik egin ere, lehendakaria, idazkaria eta kide titular edo ordezkoren erdia, gutxienez, biltzen ez badira.

#### **3. Oposizio-aldiko ariketak**

Oposizio-aldiko ariketetarako deiak, Epaimahaiaren ebazpenak eta prozedura honen ondoriozko gainerako

---

– Tel . 943 857319 / Fax. 943 157458 – [ueue@udal.gipuzkoa.net](mailto:ueue@udal.gipuzkoa.net)



jakinarazpenak Mankomunitateko web orrian emango dira argitara.  
Ekitaldi bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei, ezinbesteko kasuetan izan ezik, hauek behar bezala justifikatuta badaude eta Epaimahaiak askatasunez horrela iritzita.  
Oposizio-aldian ondorengo ariketak sartuko dira:

### **Seigarrena. Hautaketa prozedura**

Hautaketa prozesuan jarraian aipatzen diren fase eta ariketak izango ditu:

1. fasea: oposizioaldia.

- Lehen ariketa: derrigorrezkoa eta baztertzaila. Idatzizko froga.

I. Eranskinean agertzen den gaiterian oinarritutako galdera-sorta erantzun beharko dute.

Ariketa honetan, gehienez ere, 40 puntu lortu ahal izango dira. Ariketa hau gainditu ahal izateko derrigorrezkoa izango da 20 puntu ateratzea.

Ariketa honetan aztergai izango den materialaren gai-zerrenda II. eranskinean jasotzen da.

- Bigarren ariketa: derrigorrezkoa eta baztertzaila. Froga praktikoa

Froga teorikoa gainditu duten hautagaiek kamioiak gidatzearekin eta hondakinen bilketarekin zerikusia duen froga praktikoa burutu beharko dute: edukiontzia kamioian deskargatu, edukiontzien mantenua...; hautaketa batzordearen esku geratuko da froga bat edo gehiago egitea, eta egun batean edo egun gehiagotan burutzea.

Ariketa honetan, gehienez ere, 40 puntu lortu ahal izango dira. Ariketa hau gainditu ahal izateko derrigorrezkoa izango da 20 puntu ateratzea.

Oposizioaldiko behin-behineko emaitzak argitaratuko dira eta hiru laneguneko epea izango dute erreklamoak aurkezteko, eta horiek Epaimahaiak erabakiko ditu.

2.fasea: Lehiaketaldia.

Eskainitako lanpostuarekin harremana duen esperientzia baloratuko da. Horretarako, 1. fasea gainditu duten izangaien iragarpena egiten den egunetik 5 laneguneko epean eskabidean jasotako merituak justifikatzen dituzten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte. Justifikatutako epealdia jarraian xehatutako moduan baloratuko da:

1. Hondakinen bilketa zamalanetan lan egindako hilabete bakoitzeko (30 egun) 0,5 puntu emango da.

Gehienez 10 puntu.

2. Lanpostuaren zerikusia duten lanak: hilabete bakoitzeko (30 egun) 0,25 puntu emango da.

Gehienez 10 puntu.

**Merituak baloratzeko ezinbestekoa izango da lan bizitza, enpresa ziurtagiria eta lan kontratuak (bere kasuan, izendapenak) aurkeztea.**

### **Zazpigarrena. Epaimahaiaren proposamena.**

Gainditu dutenen zerrenda argitaratu ondorengo lehen egunetik zenbatuta, 5 egun naturaleko epea izango dute proposaturiko hautagaiek 2. oinarrian eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak aurkezteko.

Ezarritako epe horretan, eta ezinbesteko kasuren batean izan ezik, proposaturiko hautagaiak ez badu



eskaturiko dokumentazioa aurkezten edo, aurkeztutakoa aztertu ondoren, baldintzaren bat ez duela betetzen ikusten bada, ezingo da hori izendatu, eta bertan behera geratuko dira berari buruzko jarduketa guztiak, faltsukeriagatik izan dezakeen erantzukizunaz gain. Kasu honetan, ariketa kanporatzaileak gainditu eta puntuazio-ordenan hurrengo den hautagaiaren aldeko izendapen-proposamena egingo du organo eskudunak.

#### **Zortzigarrena. Pertsonala laboralaren kontratazioa**

Lehendakaritzaren Ebazpenez, aldi baterako langile laboralak izendatuko dira Epaimahaiak proposaturiko hautagaiak, agiri bidez ziurtatu ondoren betetzen dituztela 2. oinarrian eskatzen diren baldintzak. Epaimahaiak behin betiko zerrendak onartu eta argitaratuko ditu. Prozesu hau amaitu ondoren, Mankomunitateko presidentearen ebazpen bidez, onarturik geratuko behin betiko zerrenda.

Izendatua hiru hilabeteako praktika aldi egongo da, eta amaitu baino lehen, balorazio-txosten bat prestatuko du arduradunak, izangaia lanposturako egokia den adierazteko.

#### **Bederatzigarrena. Gorabeherak.**

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmen osoa izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta, oinarri hauetan eta horren ordez aplikagarri den legerian aurreikusten ez diren gorabeheretan, hautaketa prozesua ongi bid-eratzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

#### **Hamargarrena.- Aurkaratzeak**

Deialdi hau, bere oinarriak eta honetatik edota Epaimahaiaren jokoeratik sortutako administrazioegintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak eta hura aldatu duen 4/99 Legeak dioen kasuetan eta moduan.

#### **Proposamenaren esanetan ebatzi da**

#### **EGINBIDEA.-Oinarri hauek Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak onartu zituen 2013ko ekainaren 18an emandako ebazpenean**

Azpeitian, 2013ko ekainaren 18an.

IDAZKARIA



## **I ERANSKINA: GAITEGIA**

- 1) Urola Erdiko Mankomunitatea (Estatutuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 109. zk.an, 2011/06/09an).
- 2) Urola Erdiko Mankomunitatea osatzen duten herri-jabetzako kale izendagaiak eta bideak.
- 3) Hondakinen bilketa sistemak
- 4) Hondakinen eta lurzoru kutsatuen uztailak 28ko 22/2011 Legea.
- 5) 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena
- 6) Ontzia arinak eta ontzi arinen hondakinei buruzko 11/1997 Legea
- 7) Atez ateko bilketa sistema eta berezitasunak
- 8) Hondakin organikoaren tokiko kudeaketa: auzo- eta auto-konposta
- 9) Hondakinen bilketarako azpiegiturak, baliabideak eta hauen mantenua.
- 10) Hondakinen bilketarako ibilgailuak, kaxak eta hauen erabilpena zein mantenua.
- 11) Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea.
- 12) Giza baliabideen kudeaketa: lan taldeak eta antolakuntza.